

BESTELAKO XEDAPENAK

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA

1833

EBAZPENA, 2023ko martxoaren 23koa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariarena, zeinaren bidez ekintza humanitarioko esku-hartzeetarako laguntzak emateko 2023ko deialdia egiten baita.

Ekainaren 18ko 90/2019 Dekretuak (2019ko ekainaren 26ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 120. zk.) arautzen ditu ekintza humanitarioko esku-hartzeetarako laguntzak.

Aipatu Dekretuaren 2. artikulua arabera, ekintza humanitarioko esku-hartzeetarako laguntzen modalitateak bi dira: ekintza humanitarioko proiektuetarako laguntzak eta ekintza humanitarioko estrategietarako laguntzak.

Dekretu horren 7. artikuluan xedatutakoarekin bat, laguntzen bi modalitateen deialdiak 2023rako batera egin behar dira.

Deialdi hau Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Garapenerako Lankidetzaren IV. Gida Planaren barruan sartzen da, zeina Gobernu Kontseiluaren 2022ko abenduaren 20ko erabakiaren bidez luzatu baitzen 2022-2024rako. Bai Garapenerako Lankidetzaren IV. Gida Plana (luzatua), bai Dirulaguntzen 2023ko Plan Estrategikoa (Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Zuzendaritza Kontseiluaren erabakiaren bidez onartua), bai 2023. Urteko Plana argitaratuta daude Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren web-orrian: www.elankidetz.euskadi.eus «Nortzuk gara» atala, «Plangintza» azpi-atala.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Kontseilu Errektoreak, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu eta arautzen duen ekainaren 9ko 5/2008 Legearen 10.b) artikuluan ematen zaizkion eskumenez baliaturik, 2023ko otsailaren 8ko bileran, erabaki zuen Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzendariari proposatzea laguntzen bi deialdiak eta laguntzak emateko oinarrizko irizpideak onartzea.

Hori dela eta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Ekintza humanitarioko esku-hartzeetarako laguntzak deitzea.

Ebazpen honetan deitzen diren laguntzetan bete egingo da ebazpen honetan erantsitako deialdien oinarrietan ezarritakoa:

Laguntza-modalitatea	Eranskinak
Ekintza humanitarioko proiektuetarako laguntzak	I.a. eranskina.– Ekintza humanitarioko proiektuetarako laguntzen 2023ko deialdiaren oinarriak (PRE) I.b.– eranskina.– Eskaera-orria
Ekintza humanitarioko estrategietarako laguntzak	II.a. eranskina.– Ekintza humanitarioko estrategietarako laguntzen 2023ko deialdiaren oinarriak (EHE) II.b.– Eranskina.– Eskaera-orria

XEDAPEN GEHIGARRIA

Garapenerako lankidetzaren kargurako proiektuetarako laguntzak arautzen dituen uztailaren 23ko 390/2013 Dekretuak aldatzen duen otsailaren 27ko 34/2007 Dekretuaren 23.4 artikulua dioenez, erakunde eskatzaile bakoitzak gehienez eskura dezakeen dirulaguntzaren guztizko zenbatekoa zehaztuko da dagokion ekitaldian onartzen den lehenengo laguntza-deialdian.

Hori kontuan izanik, 2023ko aurrekontu-ekitaldian ematen diren dirulaguntza guztien % 7koa izango da erakunde eskatzaile bakoitzak gehienez eskura dezakeen dirulaguntzaren guztizko zenbatekoa. Hau da, 3.201.940 euro, garapenerako lankidetzaren kargura urtean onartzen diren laguntzen edozein deialditan; dirulaguntza horiek geroago ordaindu litezke, aurreragoko ekitaldietan.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Garapenerako lankidetzaren kargurako ekintza humanitarioko esku-hartzeetarako laguntzak arautzen dituen ekainaren 18ko 90/2019 Dekretuan ezarritakoaz gain, ebazpen honek hizpide dituen dirulaguntzek honako hauek xedatutakoa dute oinarri: Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea; Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea; Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren testuaren VI. titulua eta VII. tituluko III. kapitulua; Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean jasotako oinarritzko araudia; eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrearen Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beronen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako lehendakariari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

AZKEN XEDAPENENETAKO HIRUGARRENA

Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko martxoaren 23a.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria,
PAUL ORTEGA ETCHEVERRY.

I.A ERANSKINA

EKINTZA HUMANITARIOKO PROIEKTUETARAKO LAGUNTZEN 2023KO DEIALDIAREN OINARRIAK (PRE)

1. artikulua.— Xedea.

Xedea da ekintza humanitarioko proiektuetarako laguntzen 2023ko deialdiaren oinarriak argitaratzea, gatazka-testuinguruetan eta beste indarkeria-egoera batzuetan krisi humanitarioak jasaten dituzten biztanleentzat, eremu humanitarioan erabiltzen diren nazioarteko estandarren bitartez identifikatuta.

2. artikulua.— Diru-zuzkidura.

Ekintza humanitarioko proiektuetarako laguntzen modalitaterako diru-zuzkidura 4.750.000 eurokoa da —ondoaz ondoko lehia-prozeduraren bidez emanak—.

3. artikulua.— Proiektu bakoitzeko eskatutako dirulaguntza.

1.— Erakunde bakoitzari, banaka edo taldeka, gehienez 2 eskaera eman ahal izango zaizkio.

2.— Proiektu bakoitzeko, gehienez ere, 200.000 euroko dirulaguntza esleai daiteke.

3.— Afrikan egitekoak diren ekintza humanitarioko proiektuen ekimenei emango zaie lehentasuna. Helburu horrekin, gutxienez 2.375.000 euro gordeko dira Afrikan egitekoak diren proiektuak finantzatzeko —baldin eta laguntzak arautzen dituen araudiak exijitutako betekizunak betetzen badituzte—.

4. artikulua.— Eskaerak aurkezteko eta formalizatzeko epea.

1.— 2023ko aurrekontu-ekitaldi osoan aurkeztu ahal izango dira ekintza humanitarioko proiektuetarako laguntza-eskaerak, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Hala ere, dirulaguntza-modalitate horretan esleitutako diru-zuzkidura agortzen bada, eskaerak aurkezteko epea amaitu egingo da, EHAA horren berri ematen den egunean.

2.— Agindu honen ondoriozko eskaerak, errekerimenduak, jakinarazpenak eta gainerako kudeaketak bitarteko elektronikoz bakarrik egingo dira.

3.— Eskaera-orria eskuratzeko eta betetzeko, www.euskadi.eus egoitza elektronikora jo beharko da; laguntzak eta dirulaguntzak atalera, zehazki.

4.— Egoitza elektronikoko horretan egongo dira eskuragai elektronikoki nola izapidetu behar den argitzeko zehaztapenak, bai eta eskaera-orria ere. Laguntzari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, www.euskadi.eus webgunean eskuratu ahal izango da, laguntzen eta dirulaguntzen atalean.

5.— Erakunde interesduna espedientean sartzeko, dokumentazioa aurkezteko eta zuzenketak, jakinarazpenak eta prozedura honekin lotutako gainerako izapideak egiteko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» aplikazioa baliatu behar da (<https://www.euskadi.eus/nire-karpeta/web01-sede/eu/>).

6.— Eskaerarekin batera, erakunde eskatzailea ordezkatzeko legezko gaitasuna duen pertsonaren edo erakundearen sinadura elektronikoko aitortuaz gain, harekin batera aurkeztu beharreko agiri guztiak eta Administrazioak Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatutakoaren arabera eska ditzakeenak ere aurkeztu beharko dira.

7.– Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak, interesdunak baimena eman ondoren, legezko ordezkariaren akreditazioa ofizioz begiratu, ziurtatu edo egiaztatuko du administrazio eskudunean. Hala ere, ordezkari bati eman ahal izango zaio, haren izenean elektronikoki jardun dezan ebazpen honi dagozkion jarduketak guztietan, eta, horretarako, aukera hauetako bat erabiliko da:

– Ahalordeen Erregistro Elektronikoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan kokatua (<https://www.euskadi.eus/ahalordeen-erregistro-elektronikoa/web01-sede/eu/>), edo

– Borondatezko legezko ordezkariaren egilestea inprimaki normalizatua (<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurkitze/-/eskabidea/borondatezko-legezko-ordezkari-egilestea-inprimaki-normal-dua/>), behar bezala formalizatua, eskaerarekin batera aurkeztu beharko dena. Pertsona juridikoek ordezkariaren ahalordearen kopia, edo ahalorde-emailea erakunde ordezkariaren emailearen legezko ordezkari gisa legitimatzen duen legezko zeinahi dokumentu erantsi beharko dute, edo

– Euskal Autonomia Erkidegoko Garapenerako Lankidetzako Eragilearen Erregistroa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan kokatua (https://www.euskadi.eus/erregistroa/reg_ag_coop/web01-tramite/eu/).

Ordezkariek egoitza elektronikoki horretan onartutako bitarteko bat izan beharko du elektronikoki identifikatzeko.

Honako helbide honetan daude eskuragarri Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan onartutako identifikaziorako eta sinadura elektronikorako bitartekoak: <https://www.euskadi.eus/identifikazio-elektronikorako-onartutako-bitartekoak/web01-sede/eu/>.

8.– Laguntza-eskaera eta eskatutako dokumentazioa nahi den hizkuntza ofizialean aurkeztu ahal izango dira.

9.– Eskaerak aurkezteak esan nahi du deialdi honen oinarriek zehazten dituzten baldintzak berariaz eta formalki onartzen direla.

5. artikulua.– Eskaeraren edukia eta aurkeztu beharreko agiriak.

1.– Oinarri hauetara erantsitako (1.b eranskina) eredu normalizatuan dagoen eskaera-orria osoz bete behar da, telematikoki. Eskaera-orri horretan erakunde eskatzailearen datu orokorrak, aurrekontua eta diruz lagundu beharreko proposamena bilduko dira, bai eta erakunde eskatzaileak sinatu beharreko erantzukizunpeko adierazpenak ere.

Erakunde eskatzaileen taldea sortzen bada, gainerako erakunde eskatzaileetako bakoitzak sinatutako erantzukizunpeko adierazpena ere aurkeztu beharko da (erantzukizunpeko adierazpenaren ereduak www.euskadi.eus web-orrian dago, laguntza eta dirulaguntzen atalean, eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren webgunean, «Laguntzak, bekak eta sariak» ataleko «Deialdiak» azpi-atalean).

2.– Eskaerarekin batera, honako dokumentu hauek aurkeztu behar dira:

a) Ekintza humanitarioaren esparruan gutxienez bi urte jarraiko esperientzia izatearen egiaztatzea, baldin eta erakundearen estatutuak ez bada berariaz adierazten ekintza humanitarioko proiektuak egitea dela bere helburuetako bat. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak, interesdunak baimena eman ondoren, egiaztatzea ofizioz begiratu, ziurtatu edo egiaztatuko du administrazio eskudunean.

Hala ere, estatutuetan helburu hori jasota ez badago, gutxienez bi urte jarraituko esperientzia egiaztatzeko honako dokumentu hauetako bat aurkeztu beharko da: administrazio publikoek emandako ziurtagiriak edo ebazpenak, edo interesdun ez diren beste erakunde pribatu batzuek emandako ziurtagiriak (auditoretzak barne), edo administrazio publikoek diruz lagundutako proiektuak jasotzen dituzten aldizkari ofizialetako argitalpenak, edo organo eskudunek egiaztatutako memoriak edo urteko kontuak –horietan, esperientzia jarraitu horrek espresuki adierazita egon behar du–.

b) Esku-hartzean parte hartzen duten tokiko bazkideen eraketa-eskritura edo estatutuak eta erregistro-dokumentazioa, eskaera aurkeztu baino gutxienez urtebete lehenagokoa.

Tokiko bazkidearen izaera juridikoaren ondorioz ezintasun juridiko bat edo ezintasun politiko bat badago herrialdeko egoeren ziozkoa dena, erregistroan inskribatuta egoteko baldintza egiaztatu beharrean, tokiko bazkidearen nortasun juridikoa, esperientzia eta jardura egiaztatzen dituen dokumentazioa aurkeztu beharko da.

c) Ez da beharrezkoa izango erakunde eskatzaileak inskripzioa Euskal Autonomia Erkidegoko Garapenerako Lankidetzako Eragileen Erregistroan aurkeztea, baldin eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari baimena ematen badio eskumena duen administrazioan ofizioz begiratu, ziurtatu edo egiaztatzeko.

3.– Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak automatikoki egiaztatuko du zerga-bete-beharrak eta gizarte-segurantzarekikoak betetzen dituen, datu-bitartekaritzarako plataformei edo horretarako gaitutako beste sistema elektroniko batzuei kontsulta eginez.

Hala ere, pertsona edo erakunde eskatzaileak espresuki egin diezaioke uko egiaztatze horri, eta, hala eginez gero, dagozkion egiaztariak aurkeztu beharko ditu.

Salbuespen kasuetan, inguruabarren baten ondorioz ezinezkoa bada aipatutako datuak eskuatzea, erakundeari eskatu ahalko zaio kasuan kasuko agiriak aurkezteko.

4.– Ekintza humanitarioko proiektuak baloratzeko, erakunde eskatzaileak honako dokumentazio hau aurkeztu ahal izango du:

a) Esku-hartzearen kalitatea eta zeharkakoen integrazioa baloratzeko: dirulaguntzaren proposamen teknikoa eta aurrekontu banakatua, www.euskadi.eus web-orrian (laguntzen eta dirulaguntzen atalean) eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzian («Laguntza, bekak eta sariak» ataleko «Deialdiak» azpi-atalean) argitaratutako ereduen arabera, eta planoekin lotutako obra edo azpiegituren karpeta teknikoak, administrazio-lizentziak eta prestakuntza-planak, eduki eta metodologiekin.

b) Erakunde onuraduna(k) baloratzeko: Plan estrategikoa(k), Ekintza humanitarioko plan estrategikoa(k), eta Erakunde eskatzaile(ar)en genero-ekitatearen aldeko plana(k).

c) Tokiko bazkidea(k) baloratzeko: Plan estrategikoa(k), Ekintza humanitarioko plan estrategikoa(k), eta tokiko bazkide(ar)en genero-ekitatearen aldeko politika(k).

5.– Artikulu honetako 2.b, 4.b eta 4.c ataletan aipatzen den dokumentazioa Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren esku badago, Agentziak dokumentazio hori eskuratu eta ofizioz kontsultatu ahal izango du, baldin eta erakunde interesdunak eskaeran adierazten badu zer espediente-zenbakitan dagoen eta noiz aurkeztu zuen –aurrerantzean, 2018 urtea–.

6. artikulua.– Hautaketa-batzordea.

1.– Hautaketa Batzordeak kide hauek izango ditu:

– Batzordeburua: Alazne Camiña Izkara andrea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Koordinazio Teknikoko arduraduna.

– Batzordekidea: Alicia Aleman Arrastio andrea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Lankidetzako teknikaria.

– Batzordekidea eta idazkaria: Maria Pilar Diez Arregui andrea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Lankidetzako teknikaria.

2.– Hautaketa Batzordean hutsuneren bat badago edo titularren bat absente badago, gaixorik badago edo legezko beste arrazoiren bat badago, honako hauek ordezkatu ahal izango dituzte:

– Batzordeburua: Noemí de la Fuente Pereda andrea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako Koordinazio Estrategikoko arduraduna.

– Batzordekidea: Arkaitz López Sánchez jauna, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Lankidetzako teknikaria.

– Batzordekidea eta idazkaria: Ana María Tellería Gallastegui andrea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Lankidetzako teknikaria.

3.– Hautaketa Batzordeak, behar izanez gero, teknikari espezialisten laguntza izan dezake. Teknikari horiek batzordean hitz egiteko eskubidea izango dute, baina botoa emateko eskubiderik ez.

7. artikulua.– Balorazio-irizpideak.

Balorazio-irizpideak ekintza humanitarioko esku-hartzeetarako laguntzak arautzen dituen ekainaren 18ko 90/2019 Dekretuaren 15. artikuluan jasotakoak dira.

8. artikulua.– Instrukzioa eta esleitzeko eskumena duen organoa.

1.– Prozeduraren instrukzioa Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako Koordinazio Teknikoko Zerbitzuari dagokio.

Instruktoreak, Hautaketa Batzordearen espedientea eta txostena ikusitakoan, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariari proposatuko dizkio egokitzen jotzen dituen laguntzak. zuzendariak, azkenik, eskatutako laguntzak esleitzeko eta ukatzeko ebazpena ezarriko du.

9. artikulua.– Ebazpena.

1.– Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariaren ebazpena, eskatutako laguntzak esleitu edo ukatzen dituen, banan-banan jakinaraziko zaio erakunde interesdun bakoitzari. Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 51.9 artikuluekin bat, eskaera aurkeztu zenetik 6 hilabeteko epea igaro ondoren, berariazko ebazpenik jakinarazi ez bada, eskaera ezetsitzat joko da.

2.– Ekintza humanitarioko proiektuetara zuzendutako funtsak agortuz gero, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren bitartez jakinaraziko da, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariaren ebazpena argitaratuta.

2023ko apirilaren 17a, astelehena

I.B ERANSKINA
ESKABIDEA
EKINTZA HUMANITARIOKO PROIEKTUAK (PRE)

I.B eranskin hau deialdi-ebazpenari erantsi zaio, eskabide normalizatuaren edukia argitara emateko soilik. Ekintza humanitarioko proiektuetarako laguntza eskatu nahi duen erakundeak ez du eranskin hau erantsi beharko; aitzitik, telematikoki bete beharko du, www.euskadi.eus webgunearen bidez, Laguntzak eta dirulaguntzak atalean.

Izartxo batekin (*) markatutako eremuak derrigorrezkoak dira

Nori zuzendua:

Organismoa: BESTE ORGANISMOAK – GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA

Organo izapidegilea: GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA ZUZENDARITZA

DATU PERTSONALAK**Eskatzailea:****Honen izenean ari da** ☐ Pertsona/entitate interesdun gisa espedientean: ☐ Ordezkaria:

Identifikazio-dokumentua	Zenbakia	Izena	Lehen abizena	Bigarren abizena	Sexua

DATU JAKINARAZPENAK**Jakinarazpen eta komunikazioak hona bidaliko dira:**

Espedientea tramitatzen den bitartean Administrazioak bidalitako jakinarazpenak honi zuzenduko zaizkio:

Jakinarazpen eta komunikazioetarako kanala*

Elektronikoa: [Nire karpeta](#) guneko jakinarazpen eta komunikazioen atalera igorriko dira. Bertan sartzeko, [identifikazio elektronikorako bitarteko](#) bat beharrezkoa da.

Kanal elektronikoaren gainera oharra: jakinarazpen elektronikora sartzen ez bazara, jakinaraztat emango da Nire karpetan eskuragarri jartzen denetik 10 egun naturaleko epean. Esandako epea betetzen denean, jakinarazpena ukatu egin duzula ulertuko da, eta horrela jasoko da espedientean. Izapidea egintzat emango da, eta administrazioak aurrera jarraituko du prozedurarekin.

Abisuak jasotzeko datuak

Nire karpetan jakinarazpen edo komunikazioen bat jasotzerakoan abisu bat bidaliko dizugu posta elektronikora eta telefono mugikorrera.

Posta elektronikoa* _____

Berretsi posta elektronikoa _____

Telefono mugikorra _____

Komunikazio hizkuntza*

Mezu elektronikoko eta abisu-mezu bidezko jakinarazpen eta komunikazioak zuk aukeratutako hizkuntzan bidaliko dizkizugu.

- ☐ Euskara ☐ Gaztelania

Datuak erabiltzeko baimena

- ☐ Nire komunikazio eta abisuetarako datuak Eusko Jaurlaritzako sail eta erakundeekiko harremanetan erabiltzea nahi dut.
- ☐ Nire komunikazio eta abisuetarako datuak espediente hau kudeatzeko bakarrik erabiltzea nahi dut.

DOKUMENTAZIOARI BURUZKO OHARRA**Ez da beharrezkoa Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzian dagoen dokumentazioa aurkeztea**

Aldez aurretik aurkeztu bada, ez da beharrezkoa izango eskabide honi lotutako dokumentazioa berriz aurkeztea. [DOK] bidez identifikatutako inprimakiaren atal bakoitzean, dokumentu horietako bakoitza aurkeztu zen deialdiaren espediente-zenbakia eta urtea (2018tik aurrera) adierazi beharko dira, eta indarrean jarraitu beharko dute.

Dokumentuen hizkuntza

Euskaraz edo gaztelaniaz ez dauden dokumentuekin batera gastelaniarako edo euskarako itzulpena aurkeztu beharko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 15. Artikuluan xedatutakoaren arabera.

PROIEKTUAREN DATUAK**Erreferente den pertsonaren datuak**

Izena *

Lehen abizena *

Bigarren abizena

Lanpostua eta kargua

Telefonoa *

Helbide elektronikoa *

Laguntzaren modalitatea

Programa PRE Lerro EH

Zein lurralde/probintzian daude erakunde eskatzailearen datu fiskalak

Lurralde / Probintzia * Hautatu aukera

- ☐ Araba/Álava ☐ Bizkaia ☐ Gipuzkoa ☐ Beste probintzia batzuk

Erakunde eskatzaileen patzuergoa

Patzuergoan aurkeztutako ekimen bat da?* ☐ Bai ☐ Ez

Erakunde eskatzailearen/partzuergoko buruaren datuak (LEHEN TOKIAN) eta egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan duten partzuergoko erakundearen datuak (GUZTIAK) eta gauzatu beharreko dirulaguntzaren ehunekoa

Eragileen Erregistro Kodea	Izena	IFZ	Gauzatu beharreko dirulaguntzaren %	Erregistroa	Erregistro-data

Tokiko-erakundearen partzuergoa

Patzuergoan aurkeztutako ekimen bat da?* ☐ Bai ☐ Ez

Toki erakundearen datuak (GUZTIAK) eta gauzatu beharreko dirulaguntzaren ehunekoa

Kodea	Izena	Herrialdea	Probintzia	Udalerría	Helbidea	Telefonoa	Helbide elektronikoa	Webgunea	Gauzatu beharreko dirulaguntzaren %	Erregistroa	Erregistro-data	Herrialdea

[DOK] Tokiko erakundearen izena

[DOK] Esp.zbk

Aurkezpen data

Esku-hartzea

Izenburua (gehienez 150 karaktere) *

Laburpena (gehienez 400 karaktere) *

Gauzatzen den herrialdea *

Krisiaren jatorrizko herrialdea *

CRS generikoa. Hautatu ekimenak laguntzen duen CRS generikoa *

700- Laguntza humanitarioa

CRS espezifikoa. Hautatu ekimenak laguntzen duen CRS espezifikoa *

72010- Larrialdietarako laguntza eta zerbitzu materialak.

GJH hautatu ekimenak laguntzen duen GJH nagusia *

GJH helmuga. Adierazi ekimenak laguntzen duen GJH helmuga nagusia *

Proiektuaren iraupena

Aurreikusitako hasiera-data *

Zenbat hilabetetan gauzatuko den *

Xede-biztanleria / karakterizazioa

1.-Ekimenaren jardueretan zuzenean parte hartzen duen xede-biztanleria

Xede-biztanleria ekimena gauzatu behar den/diren herrialdean/herrialdeetan

Emakumeak: *

Gizonak: *

Ez bitarrak: *

Guztira: *

Xede-biztanleria Euskadin			
Emakumeak: *	Gizonak: *	Ez bitarrak: *	Guztira: *
Beste lurralde batzuetako xede-biztanleria			
Zehaztu zein/zeintzuk: L1	L2	L3	
Emakumeak: *	Gizonak: *	Ez bitarrak: *	Guztira: *
Ekimenaren jardueretan guztira zuzenean parte hartzen duen xede-biztanleria			
Emakumeak: *	Gizonak: *	Ez bitarrak: *	Guztira: *
2.-Xede-biztanleriaren karakterizazioa, zein da gehiengoa honako irizpide hauen arabera:			
Xede-biztanleriaren sexua * Hautatu aukera			
☐ Emakumeak ☐ Gizonak ☐ Ez bitarrak ☐ Guztiak			
Xede-biztanleriaren adina * Hautatu aukera			
☐ Haurtzaroa ☐ Gazteak ☐ Helduak ☐ Adineko pertsonak ☐ Guztiak			
Xede-biztanleria mota * Hautatu aukera			
☐ Errefuxiatuak edo barne desplazatuak ☐ Tokiko biztanleria ☐ Estaturik gabeko herriak ☐ Talde sozial edo etniko diskriminatuak ☐ Gaixoak ☐ Guztiak			
Krisi mota * Hautatu aukera			
☐ Gatazka armatua ☐ EBk ahaztutako gatazka ☐ Beste indarkeria-egoera batzuk			
Testuingurua * Hautatu aukera		Zehaztu:	
☐ Hiritarra ☐ Landatarra ☐ Kanpamentuak ☐ Beste batzuk			

Finantzaketa

Kostua guztira (eurotan) *

Eskatutako dirulaguntza (eurotan) *

Aurrekontu-taula (partidak / Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari eskatutako zenbatekoa eurotan / diru-laguntzaren guztizkoaren gaineko %). Zenbaki-motako eremuetarako balio duen formatua honako hau da: #.###,##, hau da, miletan puntu eta hamartarretan koma.

A. Zuzeneko kostuak

A.I.- Identifikazio-gastuak *	Guztizkoaren gaineko % *
A.II.- Ondasunak eta zerbitzuak hornitzeko gastuak, erkidegoak eta pertsonak babesteko *	Guztizkoaren gaineko % *
A.III.- Erakunde humanitarioak indartzeko gastuak *	Guztizkoaren gaineko %
A.IV.- Lekukotza, salaketa eta eraginen gastuak *	Guztizkoaren gaineko % *
A.V.- Langileen gastuak *	Guztizkoaren gaineko % *
A.VI.- Funtzionamendu-gastuak *	Guztizkoaren gaineko % *

A.VII.- Ebaluazioaren eta kontu-auditoriaren gastuak *

Guztizkoaren gaineko % *

Zuzeneko kostuak, guztira

B. Zeharkako kostuak

Erakunde eskatzailearen administrazio-gastuak *

Guztizkoaren gaineko %*

Zeharkako kostuak, guztira

Guztira

Guztira

Tokiko moneta euro bihurtzeko erabilitako kanbio-tasa (KT). Ikusi deialdi-ebazpenarekin batera argitaratutako Jarraibideak

Tarteko dibisa (KT) *

Tarteko dibisa (moneta) *

Tokiko dibisa 1 (KT)

Tokiko dibisa 1 (moneta)

Tokiko dibisa 2 (KT)

Tokiko dibisa 2 (moneta)

Kanbio-tasa lortzeko iturria (EBZ // oanda// NBE) *

Kanbio-tasaren data * (eskaera egin baino hilabete lehenago, gehienez)*

DATU OSAGARRIAK**Erakunde eskatzaileari/partzuergoko buruari buruzko beste datu batzuk**

Bazkide kopurua:

Emakumeak* Gizonak * Ez bitarrak * Guztira *

Boluntario kopurua:

Emakumeak * Gizonak * Ez bitarrak * Guztira *

EAEn kontratatutako pertsonen kopurua:

Emakumeak * Gizonak * Ez bitarrak * Guztira *

Lankidetzatza garatzen diren lurraldeetan langile kopurua: Emakumeak * Gizonak * Ez bitarrak * Guztira *

Erakunde eskatzaile/partzuergoko burua honi atxikita dago (adieraz ezazu jokabide-kode bat duen garapenerako lankidetzako eta/edo ekintza humanitarioko koordinatzailearen edo sarearen izen osoa, eta Jarraipen Batzordeak zehapenik ezarri ez diona):

Erakunde eskatzaile/partzuergoko burua honi atxikita dago (adieraz ezazu Nazioarteko Ekintza Humanitarioaren Etikari buruzko Jokabide Kodearen izen osoa):

Hurrengo dokumentazio aurkez dezakezu balorazioa egiteko:Erakunde eskatzaileak/partzuergoko buruak Plan Estrategiko bat du: ☐ Bai ☐ Ez

Adieraz, Planaren indarraldia (hasiera-amaiera): *

[DOK] Espediente zbk.: Aurkezpen-data:

Erakunde eskatzaileak/partzuergoko buruak Ekintza Humanitarioko Plan Estrategiko bat du: ☐ Bai ☐ Ez

Adieraz, Planaren indarraldia (hasiera-amaiera): *

[DOK] Espediente zbk.: Aurkezpen-data:

Erakunde eskatzaileak/partzuergoko buruak Genero berdintasunaren Aldeko Plana du: ☐ Bai ☐ Ez

Adieraz, Planaren indarraldia (hasiera-amaiera): *

[DOK] Espediente zbk.:

Aurkezpen-data:

Partzuergoan bildutako beste erakunde eskatzaileari buruzko beste datu batzuk

Bete atal hau SOILIK, partzuergoan erakunde eskatzailearik badago.

Partzuergoko beste erakunde eskatzailea(k) honi atxikita dago/daude: ☐ Bai ☐ Ez

Aurreko erantzuna <<Bai>> izan bada, adieraz ezazu jokabide-kode bat duen garapenerako lankidetzako eta/edo ekintza humanitarioko koordinatzailearen edo sarearen izen osoa, eta Jarraipen Batzordeak zehapenik ezarri ez diona. Eman ezazu patzuergoko beste erakunde eskatzaile bakoitzaren informazioa

Partzuergoko beste erakunde eskatzailea	Koordinatzailea edo sarea

Partzuergoko beste erakunde eskatzailea(k) honi atxikita dago/daude: ☐ Bai ☐ Ez

Aurreko erantzuna <<Bai>> izan bada, adieraz ezazu Nazioarteko Ekintza Humanitarioaren Etikari buruzko Jokabide Kodearen izen osoa:

Partzuergoko beste erakunde eskatzailea	Jokabide kodea

Hurrengo dokumentazio aurkez dezakezu balorazioa egiteko:

Partzuergoko beste erakunde eskatzaileak Plan Estrategiko bat du: ☐ Bai ☐ Ez

Partzuergoko beste erakunde eskatzailea	Plan Estrategiko

[DOK] Espediente zbk.:

Aurkezpen-data:

Partzuergoko beste erakunde eskatzaileak Ekintza Humanitarioko Plan Estrategiko bat du: ☐ Bai ☐ Ez

Partzuergoko beste erakunde eskatzailea	Ekintza Humanitarioko Plan Estrategiko

[DOK] Espediente zbk.:

Aurkezpen-data:

Partzuergoko beste erakunde eskatzaileak Genero Berdintasunaren Aldeko Plana du: ☐ Bai ☐ Ez

Partzuergoko beste erakunde eskatzailea	Genero Berdintasunaren Aldeko Plana

[DOK] Espediente zbk.:

Aurkezpen-data:

Tokiko erakundeari/ei buruzko beste datu batzukTokiko erakundea/k honi atxikita dago/daude: ☐ Bai ☐ Ez

Aurreko erantzuna «Bai» izan bada, adieraz ezazu jokabide-kode bat duen garapenerako lankidetzako eta/edo ekintza humanitarioko koordinatzailearen edo sarearen izen osoa, eta Jarraipen Batzordeak zehapenik ezarri ez diona. Eman ezazu toki erakunde bakoitzaren informazioa: *

Tokiko erakundea	Koordinatzailea edo sarea

2023ko apirilaren 17a, astelehena

Tokiko erakunde/k honi atxikita dago/daude: ☐ Bai ☐ Ez

Aurreko erantzuna «Bai» izan bada, adieraz ezazu toki erakunde bakoitzaren Nazioarteko Ekintza Humanitarioko Etikari buruzko Jokabide Kodearen izen osoa: *

Tokiko erakundea	Jokabide kodea

Hurrengo dokumentazio aurkez dezakezu balorazioa egiteko:

Tokiko erakundeak/ek Plan Estrategiko bat du/dute: ☐ Bai ☐ Ez

Adieraz, Planaren indarraldia (hasiera-amaiera): *

Tokiko erakundea	Planaren indarraldiaren datak (hasiera-amaiera)

[DOK] Espediente zbk.: Aurkezpen-data:

Tokiko erakundeak/ek Ekintza Humanitarioko Plan Estrategiko bat du/dute: ☐ Bai ☐ No

Adieraz, Planaren indarraldia (hasiera-amaiera): *

Tokiko erakundea	Planaren indarraldiaren datak (hasiera-amaiera)

[DOK] Espediente zbk.: Aurkezpen-data:

Tokiko erakundeak/ek Genero-berdintasunaren aldeko Politika bat du/dute: ☐ Bai ☐ Ez

Adieraz, Planaren indarraldia (hasiera-amaiera): *

Tokiko erakundea	Planaren indarraldiaren datak (hasiera-amaiera)

[DOK] Espediente zbk.: Aurkezpen-data:

Esku-hartzeari buruzko beste datu batzukOrdainagiriak erabiltzea, fakturen bidez justifikatu ezin denean: ☐ Bai ☐ Ez**Ordainagiriak (kontzeptua / zenbatekoa (eurotan) / diru-laguntzaren guztizkoaren gaineko %)**

Elikadura	Gustizkoaren gaineko %
Garraioa	Gustizkoaren gaineko %
Besteak_1	Gustizkoaren gaineko %

Besteak_2	Guztizkoaren gaineko %
Besteak_3	Guztizkoaren gaineko %
Besteak_4	Guztizkoaren gaineko %

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAK

Erakunde eskatzaileak/partzuergoko buruak adierazten du laguntza jasotzeko baldintzak betetzen dituela eta hori egiaztatzen duen dokumentazioa duela; eskatzen zaionean, Administrazioaren esku jarriko duela; eskubidea aitortzeak berekin dakarren denboran betekizun horiek betetzen jarraitzeko konpromisoa hartzen duela; funtsezko zehaztugabetasunak, faltsutasunak edo omisioak erantzukizun penalak, zibilak edo administratiboak ekar ditzaketela, eta Administrazioak egiaztatzeko, kontrolatzeko eta ikuskatzeko ahalmenak badituela.

Erakunde eskatzailearen/partzuergoko buruaren erantzukizunpeko adierazpenak

1. Eskatu edo jaso du beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk eskatzea edo jasotzea, edozein administrazio edo erakundetik datozela ere, publikoak zein pribatuak izan:

- ☐ Ez
- ☐ Bai, kasu honetan, sartu datuak taulan

Erakundea	Zenbatekoa	Egoera: eskatua edo lortua

☐ 2. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, haren erakunde autonomoek eta beste erakunde batzuek emandako izaera bereko laguntzen edo diru-laguntzen esparruan hasi eta oraindik izapidetzen ari den itzulketa- edo zehapen-prozeduraren batean sartuta badago.

- ☐ Ez
- ☐ Bai, kasu honetan, sartu datuak taulan

Prozedura / Kudeaketa instantzia

Prozedura	Kudeaketa instantzia

☐ 3. Ez dago Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 eta 13.3 artikuluetan jasotako debekuen eraginpean.

☐ 4. Ez du laguntza edo diru-laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen administratiborik edo penalik, eta ez du laguntza edo diru-laguntza horiek jasotzeko legezko debekurik, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera sexu diskriminazioagatik gertatutakoak barne.

☐ 5. Erakunde eskatzaileak/partzuergoko buruak adierazten du tokiko erakundeak/ek ez duela/dutela sexu-diskriminazioagatik zigor administratibo edo penalik.

Emakidaren behin-behineko ebazpenean esleipendun suertatzen bada, 5. atalari dagokiona dokumentazio bidez egiaztatu beharko du, horretarako emango den 15 egun balioduneko epean.

AKREDITAZIOAK

Erakunde eskatzaileak/partzuergoko buruak ofizioz egiaztapenen bat baimentzen ez badu, dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko du.

Aplikatzekoa den araudiaren arabera, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak erakunde eskatzaileari/partzuergoko buruari buruzko datu hauek egiaztatuko ditu ofizioz administrazio eskudunean:

Legezko ordezkariaren egiaztapena

- Erakunde eskatzaileak/partzuergoko buruak baimena ematen dio deialdi hau kudeatzen duen organoari administrazio eskudunean egiaztatzeko, ziurtatzeko edo baieztatzeko, bitarteko telematikoen bidez edo, hala badagokio, eskuragarri dauden bitarteko bidez, legezko ordezkariaren egiaztapena.

Garapenerako Lankidetzako Eragileen Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistroan inskribatuta egotearen egiaztapena

- Erakunde eskatzaileak/partzuergoko buruak baimena ematen dio deialdi hau kudeatzen duen organoari administrazio eskudunean egiaztatzeko, ziurtatzeko edo baieztatzeko, bitarteko telematikoen bidez edo, hala badagokio, eskuragarri dauden bitarteko bidez, Garapenerako Lankidetzako Eragileen Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistroan izena eman duela.

Estatutuetan, helburuen artean, ekintza humanitarioko proiektuak egiten duela jasotzea

- Erakunde eskatzaileak/partzuergoko buruak baimena ematen dio deialdi hau kudeatzen duen organoari administrazio eskudunean egiaztatzeko, ziurtatzeko edo baieztatzeko, bitarteko telematikoen bidez edo, hala badagokio, eskuragarri dauden bitarteko bidez, dagokion erregistroan erregistratutako erakunde eskatzailearen estatutuetan berriaz jasotzen dela haren helburuen artean dagoela ekintza humanitarioko proiektuak egitea. Hala ez bada, dokumentazio bidez egiaztatu beharko da erakundeak gutxienez bi urte daramatzala eremu horretan etengabe jarduten, dagokion informazioa «Erakunde eskatzailearen eranskinak» barruan erantsi beharko da.

Datuen babesari buruzko informazio oinarritzkoa

Eskabidean agertzen diren datu pertsonalak erabiliko dira, eta tratamendu-jarduera honi erantsiko zaizkio Garapenerako Lankidetzarako dirulaguntzak.

- **Arduraduna:** Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia.
- **Helburua:** GARAPENERAKO LANKIDETZAREN ALORREKO LAGUNTZA EKONOMIKO, DIRU-LAGUNTZA ETA BEKEN KUDEAKETA.
- **Legitimazioa:**
 - Tratamendu beharrezkoa da, interes publikoaren aldeko eginkizunen bat betetzeko edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak betetzeko jardunean.
- **Hartzaileak:**
 - Ogasun publikoa eta zerga administrazioa.
 - Gizarte segurantzaren organismoak.
 - EUSKAL HERRIKO AGINTARITZAREN ALDIZKARIAN KOOPERATZAILEEN ETA BEKADUNEN IZEN-ABIZENAK ARGITARATZEA.
- **Eskubideak:** datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea duzu, baita informazio gehigarrian jasotzen diren bestelako eskubide batzuk ere.
- **Informazio osagarria:** gure web-orrian kontsulta dezakezu Datuen Babesari buruzko informazio gehigarri eta zehaztua (www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/019500-capa2-eu.shtml)

Araudia:

Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorra

(www.euskadi.eus/contenidos/informacion/normativa_dpd/eu_def/adjuntos/RGDP-2016_0679_eu.pdf)

3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa (www.boe.es/boe_euskera/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673-E.pdf)

DOKUMENTUAK ERANTSI**Ofizioz konprobatzea**

Aplikatu beharreko araudiaren arabera, prozedura honen instrukzio-organoak **ofizioz egiaztatuko ditu** administrazio eskudunean datu hauek:

- ✓ Gizarte Segurantzaren ordainketan egunean egotea (Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia - GSDN).
- ✓ Zerga-betebeharren ordainketa egunean izatea (Euskal Foru Aldundiak eta Zerga Administrazioko Estatu Agentzia).

Interesdunak, modu arrazoituan, aurka egiten dionean izan ezik. Erabili aurka egiteko eskubidea.

Eskatutako dokumentu motak

Eskatutako dokumentuak	Ekintzak
Proposamen teknikoa	Erantsi / Bilatu / Aurkeztua
Aurrekontua	Erantsi / Bilatu / Aurkeztua
Erakunde eskatzailearen eranskinak	Erantsi / Bilatu / Aurkeztua
Tokiko erakundearen eranskinak	Erantsi / Bilatu / Aurkeztua
Bideragarritasun teknikoaren, materialaren eta metodologikoaren eranskinak	Erantsi / Bilatu / Aurkeztua

II.A ERANSKINA

EKINTZA HUMANITARIOKO ESTRATEGIETARAKO LAGUNTZEN 2023KO DEIALDIAREN
OINARRIAK (EHE)

1. artikulua.– Xedea.

Ebazpen honen xedea da ekainaren 18ko 90/2019 Dekretuan araututako laguntzen 2023ko deialdia egitea, ekintza humanitarioko estrategietarako laguntzen modalitatean, gatazka-testuinguruetan eta beste indarkeria-egoera batzuetan krisi humanitarioak jasaten dituzten pertsonen eskubideak eta giza duintasuna babesteko, sufrimendua arintzeko eta bizitzak salbatzeko, eremu humanitarioan erabiltzen diren nazioarteko estandarren bitartez identifikatuta.

2. artikulua.– Zuzkidura ekonomikoa.

Ekintza humanitarioko estrategien modalitateko laguntzetarako diru-zuzkidura 4.000.000 eurokoa da – norgehiagoka-prozeduraren bidez emanak–.

3. artikulua.– Proiektu bakoitzeko eskatutako dirulaguntza.

1.– Erakunde bakoitzak, banaka edo taldeka, gehienez 2 eskaera aurkeztu ahal izango ditu.

2.– Esku-hartze bakoitzeko, gehienez ere, 800.000 euroko dirulaguntza eman daiteke, eta gutxienezko zenbatekoa 500.000 eurokoa izango da.

3.– Kontinente afrikarrean egindako ekintza humanitarioko estrategien ekimenei lehentasuna emango zaie. Horretarako, Afrikan egin beharreko gutxienez 3 estrategiari emango zaie dirulaguntza, beren puntuazioa gorabehera, betiere laguntzen araudian eskatzen diren baldintzak betetzen badituzte. Gainerako soberakina puntuazio-ordenaren arabera emango da.

4. artikulua.– Eskaerak aurkezteko eta formalizatzeko epea.

1.– Eskaerak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, eta epemuga-hilean amaituko da, argitaratu zen egunean. Epemuga-hilean ez badago epea hasi den egunaren baliokiderik, hilaren azken egunean bukatuko da epea.

2.– Agindu honen ondoriozko eskaerak, errekerimenduak, jakinarazpenak eta gainerako kudeaketak bitarteko elektronikoz bakarrik egingo dira.

3.– Eskaera-orria eskuratzeko eta betetzeko, www.euskadi.eus egoitza elektronikora jo beharko da; laguntzak eta dirulaguntzak atalera, zehazki.

4.– Egoitza elektroniko horretan egongo dira eskuragai elektronikoki nola izapidetu behar den argitzeko zehaztapenak, bai eta eskaera-orria ere. Laguntzari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, www.euskadi.eus webgunean eskuratu ahal izango da, laguntzen eta dirulaguntzen atalean.

5.– Erakunde interesduna espedientean sartzeko, dokumentazioa aurkezteko eta zuzenketak, jakinarazpenak eta prozedura honekin lotutako gainerako izapidetak egiteko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» aplikazioa baliatu behar da (<https://www.euskadi.eus/nire-karpeta/web01-sede/eu/>).

6.– Eskaerarekin batera, erakunde eskatzailea ordezkatzeko legezko gaitasuna duen pertsonaren edo erakundearen sinadura elektroniko aitortuaz gain, harekin batera aurkeztu beharreko agiri guztiak eta Administrazioak Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatutakoaren arabera eska ditzakeenak ere aurkeztu beharko dira.

7.– Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak, interesdunak baimena eman ondoren, legezko ordezkariaren akreditazioa ofizioz begiratu, ziurtatu edo egiaztatuko du administrazio eskudunean. Hala ere, ordezkari bati eman ahal izango zaio, haren izenean elektronikoki jardun dezan ebazpen honi dagozkion jarduketak guztietan, eta, horretarako, aukera hauetako bat erabiliko da:

- Ahalordeen Erregistro Elektronikoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa kokatua (<https://www.euskadi.eus/ahalordeen-erregistro-elektronikoa/web01-sede/eu/>), edo

- Borondatezko legezko ordezkariaren egilestea inprimaki normalizatua (<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurilaritza/-/eskabidea/borondatezko-legezko-ordezkaritza-egilestea-inprimaki-normaldua/>), behar bezala formalizatua, eskaerarekin batera aurkeztu beharko dena. Pertsona juridikoek ordezkariaren ahalordearen kopia, edo ahalorde-emailea erakunde ordezkariaren emailearen legezko ordezkari gisa legitimatzen duen legezko zeinahi dokumentu erantsi beharko dute, edo

- Euskal Autonomia Erkidegoko Garapenerako Lankidetzako Eragileen Erregistroa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa kokatua (https://www.euskadi.eus/erregistroa/reg_ag_coop/web01-tramite/eu/).

Ordezkariek egoitza elektronikoa horretan onartutako bitarteko bat izan beharko du elektronikoki identifikatzeko.

Honako helbide honetan daude eskuragarri Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa onartutako identifikaziorako eta sinadura elektronikorako bitartekoak: <https://www.euskadi.eus/identifikazio-elektronikorako-onartutako-bitartekoak/web01-sede/eu/>.

8.– Laguntza-eskaera eta eskatutako dokumentazioa nahi den hizkuntza ofizialean aurkeztu ahal izango dira.

9.– Eskaerak aurkezteak esan nahi du deialdi honen oinarriek zehazten dituzten baldintzak berariaz eta formalki onartzen direla.

5. artikulua.– Eskaeren edukia eta aurkeztu beharreko dokumentazioa.

1.– Oinarri hauetara erantsitako (II.b eranskina) eredu normalizatuan dagoen eskaera-orria osorik bete behar du erakunde eskatzaileak, telematikoki. Eskaera-orri horretan erakunde eskatzailearen datu orokorrak, aurrekontua eta diruz lagundu beharreko proposamena bilduko dira, bai eta erakunde eskatzaileak sinatu beharreko erantzukizunpeko adierazpena ere.

Erakunde eskatzaileen taldea sortzen bada, gainerako erakunde eskatzaileetako bakoitzak sinatutako erantzukizunpeko adierazpena ere aurkeztu beharko da (erantzukizunpeko adierazpenaren eredu www.euskadi.eus web-orrian dago, laguntza eta dirulaguntzen atalean, eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren webgunean, «Laguntzak, bekak eta sariak» ataleko «Deialdiak» azpi-atalean).

2.– Eskaerarekin batera, honako dokumentu hauek aurkeztu behar dira:

a) Ekintza humanitarioaren esparruan gutxienez bi urte jarraiko esperientzia izatearen egiaztapena, baldin eta erakundearen estatutuetan ez bada berariaz adierazten ekintza humanitarioko proiektuak egitea dela bere helburuetako bat. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak, interesdunak baimena eman ondoren, egiaztapena ofizioz begiratu, ziurtatu edo egiaztatuko du administrazio eskudunean.

Hala ere, estatutuetan helburu hori jasota ez badago, gutxienez bi urte jarraituko esperientzia egiaztatzeko honako dokumentu hauetako bat aurkeztu beharko da: administrazio publikoek emandako

ziurtagiriak edo ebazpenak, edo interesdun ez diren beste erakunde pribatu batzuek emandako ziurtagiriak (auditoretzak barne), edo administrazio publikoek diruz lagundutako proiektuak jasotzen dituzten aldizkari ofizialetako argitalpenak, edo organo eskudunek egiaztatutako memoriak edo urteko kontuak –horietan, esperientzia jarraitu horrek espresuki adierazita egon behar du–.

b) Esku-hartzean parte hartzen duten tokiko bazkideen eraketa-eskritura edo estatutuak eta erregistro-ziurtagiria, eskaera aurkeztu baino gutxienez urtebete lehenagokoa.

Tokiko bazkidearen izaera juridikoaren ondorioz ezintasun juridiko bat edo ezintasun politiko bat badago herrialdeko egoeren ziozkoa dena, erregistroan inskribatuta egoteko baldintza egiaztatu beharrean, tokiko bazkidearen nortasun juridikoa, esperientzia eta jarduera egiaztatzen dituen dokumentazioa aurkeztu beharko da.

c) Ez da beharrezkoa izango erakunde eskatzaileak inskripzioa Euskal Autonomia Erkidegoko Garapenerako Lankidetzako Eragileen Erregistroan aurkeztea, baldin eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari baimena ematen badio eskumena duen administrazioan ofizioz begiratu, ziurtatu edo egiaztatzeko.

d) Erakunde eskatzaile bakoitzaren ekintza humanitarioko plan estrategikoa, ekintza humanitarioko esku-hartzeetarako laguntzak arautzen dituen ekainaren 18ko 90/2019 Dekretuaren 5.1.c artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

3.– Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak ofizioz egiaztatuko du zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituen, datu-bitartekaritzarako plataformei edo horretarako gaitutako beste sistema elektroniko batzuei kontsulta eginez.

Hala ere, pertsona edo erakunde eskatzaileak espresuki egin diezaioke uko egiaztatze horri, eta, hala eginez gero, dagozkion egiazttagiriak aurkeztu beharko ditu.

Salbuespen kasuetan, inguruabarren baten ondorioz ezinezkoa bada aipatutako datuak eskuratzea, erakunde eskatzaileari eskatu ahalko zaio kasuan kasuko agiriak aurkezteko.

4.– Ekintza humanitarioko estrategia baloratzeko, erakunde eskatzaileak honako dokumentazio hau aurkeztu ahal izango du:

a) Esku-hartzearen kalitatea eta zeharkakoen integrazioa baloratzeko: dirulaguntzaren proposamen tekniko eta aurrekontu banakatua, www.euskadi.eus web-orrian (laguntzen eta dirulaguntzen atalean) eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzian («Laguntza, bekak eta sariak» ataleko «Deialdiak» azpi-atalean) argitaratutako ereduaren arabera, eta planoekin lotutako obra edo azpiegituren karpeta teknikoak, administrazio-lizentziak eta prestakuntza-planak, eduki eta metodologiekin.

b) Erakunde onuraduna(k) baloratzeko: Plan estrategikoa(k) eta Erakunde eskatzaile(ar)en genero-ekitatearen aldeko plana(k).

c) Tokiko bazkidea(k) baloratzeko: Plan estrategikoa(k), Ekintza humanitarioko plan estrategikoa(k), eta Tokiko bazkide(ar)en genero-ekitatearen aldeko politika(k).

5.– Artikulu honetako 2.b, 2.d eta 4.c ataletan aipatzen den dokumentazioa Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren esku badago, Agentziak dokumentazio hori eskuratu eta ofizioz kontsultatu ahal izango du, baldin eta erakunde interesdunak eskaeran adierazten badu zer espediente-zenbakitan dagoen eta noiz aurkeztu zuen –aurrerantzean, 2018 urtea–.

6. artikulua.– Hautaketa Batzordea.

1.– Hautaketa Batzordeak kide hauek izango ditu:

– Batzordeburua: Alazne Camiña Izkara andrea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Koordinazio Teknikoko arduraduna.

– Batzordekidea: Alicia Aleman Arrastio andrea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Lankidetzako teknikaria.

– Batzordekidea eta idazkaria: Maria Pilar Diez Arregui andrea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Lankidetzako teknikaria.

2.– Hautaketa Batzordean hutsuneren bat badago edo titularren bat absente badago, gaixorik badago edo legezko beste arrazoiren bat badago, honako hauek ordezkatu ahal izango dituzte:

– Batzordeburua: Noemí de la Fuente Pereda andrea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako Koordinazio Estrategikoko arduraduna.

– Batzordekidea: Arkaitz López Sánchez jauna, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Lankidetzako teknikaria.

– Batzordekidea eta idazkaria: Ana María Tellería Gallastegui andrea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Lankidetzako teknikaria.

3.– Hautaketa Batzordeak, behar izanez gero, teknikari espezialisten laguntza izan dezake. Teknikari horiek batzordean hitz egiteko eskubidea izango dute, baina botoa emateko eskubiderik ez.

7. artikulua.– Balorazio-irizpideak.

Balorazio-irizpideak ekintza humanitarioko esku-hartzeetarako laguntzak arautzen dituen ekainaren 18ko 90/2019 Dekretuaren 15. artikuluan jasotakoak dira.

8. artikulua.– Instrukzioa eta esleitzeko eskumena duen organoa.

1.– Prozeduraren instrukzioa Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako Koordinazio Teknikoko Zerbitzuari dagokio.

2.– Instruktoareak, Hautaketa Batzordearen espedientea eta txostena ikusitakoan, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariari proposatuko dizkio egokitzat jotzen dituen laguntzak. zuzendariak, azkenik, eskatutako laguntzak esleitzeko eta ukatzeko ebazpena ezarriko du.

9. artikulua.– Ebazpena.

1.– Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariaren ebazpena, eskatutako laguntzak esleitu edo ukatzen dituen, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da. Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 51.9 artikuluekin bat, eskaera aurkeztu zenetik 6 hilabeteko epea igaro ondoren, berriazko ebazpenik jakinarazi ez bada, eskaera ezetsitzat joko da.

II.B ERANSKINA

ESKABIDEA

EKINTZA HUMANITARIOKO ESTRATEGIAK (EHE)

II.B eranskin hau deialdi-ebazpenari erantsi zaio, eskabide normalizatuaren edukia argitara emateko soilik. Ekintza humanitarioko estrategietarako laguntza eskatu nahi duen erakundeak ez du eranskin hau erantsi beharko; aitzitik, telematikoki bete beharko du, www.euskadi.eus webgunearen bidez, Laguntzak eta dirulaguntzak atalean.

Izartxo batekin (*) markatutako eremuak derrigorrezkoak dira

Nori zuzendua:

Organismoa: BESTE ORGANISMOAK – GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA

Organo izapidegilea: GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA ZUZENDARITZA

DATU PERTSONALAK**Eskatzailea:**

Honen izenean ari da ☐ Pertsona/entitate interesdun gisa espedienteen: ☐ Ordezkaria:

Identifikazio-dokumentua	Zenbakia	Izena	Lehen abizena	Bigarren abizena	Sexua

DATU JAKINARAZPENAK**Jakinarazpen eta komunikazioak hona bidaliko dira:**

Espedientea tramitatzen den bitartean Administrazioak bidalitako jakinarazpenak honi zuzenduko zaizkio:

Jakinarazpen eta komunikazioetarako kanala*

Elektronikoa: [Nire karpeta](#) guneko jakinarazpen eta komunikazioen atalera igorriko dira. Bertan sartzeko, [identifikazio elektronikorako bitarteko](#) bat beharrezkoa da.

Kanal elektronikoaren gaineko oharra: jakinarazpen elektronikora sartzen ez bazara, jakinarazitzat emango da Nire karpetan eskuragarri jartzen denetik 10 egun naturaleko epean. Esandako epea betetzen denean, jakinarazpena ukatu egin duzula ulertuko da, eta horrela jasoko da espedienteen. Izapidea egintzat emango da, eta administrazioak aurrera jarraituko du prozedurarekin.

Abisuak jasotzeko datuak

Nire karpetan jakinarazpen edo komunikazioen bat jasotzerakoan abisu bat bidaliko dizugu posta elektronikora eta telefono mugikorrera.

Posta elektronikoa* _____

Berretsi posta elektronikoa _____

Telefono mugikorra _____

Komunikazio hizkuntza*

Mezu elektronikoa eta abisu-mezu bidezko jakinarazpen eta komunikazioak zuk aukeratutako hizkuntzan bidaliko dizkizugu.

- ☐ Euskara ☐ Gaztelania

Datuak erabiltzeko baimena

- ☐ Nire komunikazio eta abisuetarako datuak Eusko Jaurlaritzako sail eta erakundeekiko harremanetan erabiltzea nahi dut.
- ☐ Nire komunikazio eta abisuetarako datuak espediente hau kudeatzeko bakarrik erabiltzea nahi dut.

DOKUMENTAZIOARI BURUZKO OHARRA**Ez da beharrezkoa Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzian dagoen dokumentazioa aurkeztea**

Aldez aurretik aurkeztu bada, ez da beharrezkoa izango eskabide honi lotutako dokumentazioa berriz aurkeztea. [DOK] bidez identifikatutako inprimakiaren atal bakoitzean, dokumentu horietako bakoitza aurkeztu zen deialdiaren espediente-zenbakia eta urtea (2018tik aurrera) adierazi beharko dira, eta indarrean jarraitu beharko dute.

Dokumentuen hizkuntza

Euskaraz edo gaztelaniaz ez dauden dokumentuekin batera gastelaniarako edo euskarako itzulpena aurkeztu beharko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 15. Artikuluan xedatutakoaren arabera.

PROIEKTUAREN DATUAK**Erreferente den pertsonaren datuak**

Izena *

Lehen abizena *

Bigarren abizena

Lanpostua eta kargua

Telefonoa *

Helbide elektronikoa *

Laguntzaren modalitatea

Programa EHE

Lerro BA

Zein lurralde/probintzian daude erakunde eskatzailearen datu fiskalak

Lurralde / Probintzia * Hautatu aukera

- ☐ Araba/Álava ☐ Bizkaia ☐ Gipuzkoa ☐ Beste probintzia batzuk

Erakunde eskatzaileen patzuergoa

Patzuergoan aurkeztutako ekimen bat da?* ☐ Bai ☐ Ez

Erakunde eskatzailearen/partzuergoko buruaren datuak (LEHEN TOKIAN) eta egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan duten partzuergoko erakundearen datuak (GUZTIAK) eta gauzatu beharreko dirulaguntzaren portzentaia

Eragileen Erregistro Kodea	Izena	IFZ	Gauzatu beharreko dirulaguntzaren %	Erregistroa	Erregistro-data

Tokiko-erakundearen partzuergoa

Patzuergoan aurkeztutako ekimen bat da?* ☐ Bai ☐ Ez

Toki erakundearen datuak (GUZTIAK) eta gauzatu beharreko dirulaguntzaren portzentaia

Kodea	Izena	Herrialdea	Probintzia	Udalerrria	Helbidea	Telefonoa	Helbide elektronikoa	Webgunea	Gauzatu beharreko dirulaguntzaren %	Erregistroa	Erregistro-data	Herrialdea

[DOK]Tokiko erakundearen izena

[DOK] Esp.zbk

Aurkezpen data

Esku-hartzea

Izenburua (gehienez 150 karaktere) *

Laburpena (gehienez 400 karaktere) *

Gauzatzen den herrialdea *

Krisiaren jatorrizko herrialdea *

CRS generikoa. Hautatu ekimenak laguntzen duen CRS generikoa *

700- Laguntza humanitaria

CRS espezifikoa. Hautatu ekimenak laguntzen duen CRS espezifikoa *

73010- Larrialdiaren ondoren berreraikitze eta birgaitze laguntza.

GJH hautatu ekimenak laguntzen duen GJH nagusia *

GJH helmuga. Adierazi ekimenak laguntzen duen GJH helmuga nagusia *

Proiektuaren iraupena

Aurreikusitako hasiera-data *

Zenbat hilabetetan gauzatuko den *

Xede-biztanleria / karakterizazioa

1.-Ekimenaren jardueretan zuzenean parte hartzen duen xede-biztanleria

Xede-biztanleria ekimena gauzatu behar den/diren herrialdean/herrialdeetan

Emakumeak: *	Gizonak: *	Ez bitarrak: *	Guztira: *
Xede-biztanleria Euskadin			
Emakumeak: *	Gizonak: *	Ez bitarrak: *	Guztira: *
Beste lurralde batzuetako xede-biztanleria			
Zehaztu zein/zeintzuk:	L1	L2	L3
Emakumeak: *	Gizonak: *	Ez bitarrak: *	Guztira: *
Ekimenaren jardueretan guztira zuzenean parte hartzen duen xede-biztanleria			
Emakumeak: *	Gizonak: *	Ez bitarrak: *	Guztira: *
2.-Xede-biztanleriaren karakterizazioa, zein da gehiengoa honako irizpide hauen arabera:			
Xede-biztanleriaren sexua * Hautatu aukera			
☐ Emakumeak ☐ Gizonak ☐ Ez bitarrak ☐ Guztiak			
Xede-biztanleriaren adina * Hautatu aukera			
☐ Haurtzaroa ☐ Gazteak ☐ Helduak ☐ Adineko pertsonak ☐ Guztiak			
Xede-biztanleria mota * Hautatu aukera			
☐ Errefuxiatuak edo barne desplazatuak ☐ Tokiko biztanleria ☐ Estaturik gabeko herriak ☐ Talde sozial edo etniko diskriminatuak ☐ Gaixoak ☐ Guztiak			
Krisi mota * Hautatu aukera			
☐ Gatazka armatua ☐ EBk ahaztutako gatazka ☐ Beste indarkeria-egoera batzuk			
Testuingurua * Hautatu aukera		Zehaztu:	
☐ Hiritarra ☐ Landatarra		☐ Kanpamentuak ☐ Beste batzuk	

Finantzaketa

Kostua guztira (eurotan) *

Eskatutako dirulaguntza (eurotan) *

Aurrekontu-taula (partidak / Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari eskatutako zenbatekoa eurotan / diru-laguntzaren guztizkoaren gaineko %). Zenbaki-motako eremuetarako balio duen formatua honako hau da: #.###,##, hau da, miletan puntu eta hamartarretan koma.

A. Zuzeneko kostuak

A.I.- Identifikazio-gastuak *	Guztizkoaren gaineko % *
A.II.- Ondasunak eta zerbitzuak hornitzeko gastuak, erkidegoak eta pertsonak babesteko *	Guztizkoaren gaineko % *
A.III.- Erakunde humanitarioak indartzeko gastuak *	Guztizkoaren gaineko %
A.IV.- Lekukotza, salaketa eta eraginen gastuak *	Guztizkoaren gaineko % *
A.V.- Langileen gastuak *	Guztizkoaren gaineko % *

A.VI.- Funtzionamendu-gastuak *	Gutizkoaren gaineko % *
A.VII.- Ebaluazioaren eta kontu-auditoriaren gastuak *	Gutizkoaren gaineko % *
Zuzeneko kostuak, guztira	
B. Zeharkako kostuak	
Erakunde eskatzailearen administrazio-gastuak *	Gutizkoaren gaineko %*
Zeharkako kostuak, guztira	
Guztira	
Guztira	

Tokiko moneta euro bihurtzeko erabilitako kanbio-tasa (KT). Ikusi deialdi-ebazpenarekin batera argitaratutako Jarraibideak

Tarteko dibisa (KT) *	Tarteko dibisa (moneta) *
Tokiko dibisa 1 (KT)	Tokiko dibisa 1 (moneta)
Tokiko dibisa 2 (KT)	Tokiko dibisa 2 (moneta)
Kanbio-tasa lortzeko iturria (EBZ // oanda// NBE) *	
Kanbio-tasaren data * (deialdia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu den eguna)*	

DATU OSAGARRIAK
Erakunde eskatzaileari/partzuergoko buruari buruzko beste datu batzuk

Bazkide kopurua: Emakumeak* Gizonak * Ez bitarrak * Guztira *

Boluntario kopurua: Emakumeak * Gizonak * Ez bitarrak * Guztira *

EAEn kontratatutako pertsonen kopurua: Emakumeak * Gizonak * Ez bitarrak * Guztira *

Lankidetzatza garatzen diren lurraldeetan langile kopurua: Emakumeak * Gizonak * Ez bitarrak * Guztira *

Erakunde eskatzailea/partzuergoko burua honi atxikita dago (adieraz ezazu jokabide-kode bat duen garapenerako lankidetzako eta/edo ekintza humanitarioko koordinatzailearen edo sarearen izen osoa, eta Jarraipen Batzordeak zehapenik ezarri ez diona):

Erakunde eskatzailea/partzuergoko burua honi atxikita dago (adieraz ezazu Nazioarteko Ekintza Humanitarioaren Etikari buruzko Jokabide Kodearen izen osoa):

Erakunde eskatzaileak/partzuergoko buruak Ekintza Humanitarioko Plan Estrategiko bat du: ☐ Bai ☐ Ez

Adierazi, Planaren indarraldia (hasiera-amaiera): *

[DOK] Espediente zbk.: Aurkezpen-data:

Hurrengo dokumentazio aurkez dezakezu balorazioa egiteko:

Erakunde eskatzaileak/partzuergoko buruak Plan Estrategiko bat du: ☐ Bai ☐ Ez

Adierazi, Planaren indarraldia (hasiera-amaiera): *

[DOK] Espediente zbk.: Aurkezpen-data:

2023ko apirilaren 17a, astelehena

Erakunde eskatzaileak/partzuergoko buruak Genero Berdintasunaren Aldeko Plana du: ☐ Bai ☐ Ez

Adierazi, Planaren indarraldia (hasiera-amaiera): *

[DOK] Espediente zbk.: Aurkezpen-data:

Partzuergoan bildutako beste erakunde eskatzaileari buruzko beste datu batzuk

Bete atal hau SOILIK, partzuergoan erakunde eskatzailearik badago.

Partzuergoko beste erakunde eskatzailea(k) honi atxikita dago/daude: ☐ Bai ☐ Ez

Aurreko erantzuna <<Bai>> izan bada, adieraz ezazu jokabide-kode bat duen garapenerako lankidetzako eta/edo ekintza humanitarioko koordinatzailearen edo sarearen izen osoa, eta Jarraipen Batzordeak zehapenik ezarri ez diona. Eman ezazu patzuergoko beste erakunde eskatzaile bakoitzaren informazioa:

Partzuergoko beste erakunde eskatzailea	Koordinatzailea edo sarea

Partzuergoko beste erakunde eskatzailea(k) honi atxikita dago/daude: ☐ Bai ☐ Ez

Aurreko erantzuna <<Bai>> izan bada, adieraz ezazu Nazioarteko Ekintza Humanitarioaren Etikari buruzko Jokabide Kodearen izen osoa:

Partzuergoko beste erakunde eskatzailea	Jokabide kodea

Partzuergoko beste erakunde eskatzaileak Ekintza Humanitarioko Plan Estrategiko bat du: ☐ Bai ☐ Ez

Partzuergoko beste erakunde eskatzailea	Ekintza Humanitarioko Plan Estrategiko

[DOK] Espediente zbk.: Aurkezpen-data:

Hurrengo dokumentazio aurkez dezakezu balorazioa egiteko:

Partzuergoko beste erakunde eskatzaileak Plan Estrategiko bat du: ☐ Bai ☐ Ez

Partzuergoko beste erakunde eskatzailea	Plan Estrategiko

[DOK] Espediente zbk.: Aurkezpen-data:

Partzuergoko beste erakunde eskatzaileak Genero Berdintasunaren Aldeko Plana du: ☐ Bai ☐ Ez

Partzuergoko beste erakunde eskatzailea	Genero Berdintasunaren Aldeko Plana

[DOK] Espediente zbk.: Aurkezpen-data:

Tokiko erakundeari/ei buruzko beste datu batzukTokiko erakundea/k honi atxikita dago/daude: ☐ Bai ☐ Ez

Aurreko erantzuna «Bai» izan bada, adieraz ezazu jokabide-kode bat duen garapenerako lankidetzako eta/edo ekintza humanitarioko koordinatzailearen edo sarearen izen osoa, eta Jarraipen Batzordeak zehapenik ezarri ez diona. Eman ezazu toki erakunde bakoitzaren informazioa: *

Tokiko erakundea	Koordinatzailea edo sarea

Tokiko erakunde/k honi atxikita dago/daude: ☐ Bai ☐ Ez

Aurreko erantzuna «Bai» izan bada, adieraz ezazu toki erakunde bakoitzaren Nazioarteko Ekintza Humanitarioko Etikari buruzko Jokabide Kodearen izen osoa: *

Tokiko erakundea	Jokabide kodea

Hurrengo dokumentazio aurkez dezakezu balorazioa egiteko:

Tokiko erakundeak/ek Plan Estrategiko bat du/dute: ☐ Bai ☐ Ez

Adierazi, Planaren indarraldia (hasiera-amaiera): *

Tokiko erakundea	Planaren indarraldiaren datak (hasiera-amaiera)

[DOK] Espediente zbk.: Aurkezpen-data:

Tokiko erakundeak/ek Ekintza Humanitarioko Plan Estrategiko bat du/dute: ☐ Bai ☐ No

Adierazi, Planaren indarraldia (hasiera-amaiera): *

Tokiko erakundea	Planaren indarraldiaren datak (hasiera-amaiera)

[DOK] Espediente zbk.: Aurkezpen-data:

Tokiko erakundeak/ek Genero-berdintasunaren aldeko Politika bat du/dute: ☐ Bai ☐ Ez

Adierazi, Planaren indarraldia (hasiera-amaiera): *

Tokiko erakundea	Planaren indarraldiaren datak (hasiera-amaiera)

[DOK] Espediente zbk.: Aurkezpen-data:

Esku-hartzeari buruzko beste datu batzuk

Ordainagiriak erabiltzea, fakturen bidez justifikatu ezin denean: ☐ Bai ☐ Ez

Ordainagiriak (kontzeptua / zenbatekoa (eurotan) / diru-laguntzaren guztizkoaren gaineko %)

Elikadura

Gustizkoaren gaineko %

Garraioa	Guztizkoaren gaineko %
Besteak_1	Guztizkoaren gaineko %
Besteak_2	Guztizkoaren gaineko %
Besteak_3	Guztizkoaren gaineko %
Besteak_4	Guztizkoaren gaineko %

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAK

Erakunde eskatzaileak/partzuergoko buruak adierazten du laguntza jasotzeko baldintzak betetzen dituela eta hori egiaztatzen duen dokumentazioa duela; eskatzen zaionean, Administrazioaren esku jarriko duela; eskubidea aitortzeak berekin dakarren denboran betekizun horiek betetzen jarraitzeko konpromisoa hartzen duela; funtsezko zehaztugabetasunak, faltsutasunak edo omisioak erantzukizun penalak, zibilak edo administratiboak ekar ditzaketela, eta Administrazioak egiaztatzeko, kontrolatzeko eta ikuskatzeko ahalmenak badituela.

Erakunde eskatzailearen/partzuergoko buruaren erantzukizunpeko adierazpenak

1. Eskatu edo jaso du beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk eskatzea edo jasotzea, edozein administrazio edo erakundetik datozela ere, publikoak zein pribatuak izan:

- ☐ Ez
- ☐ Bai, kasu honetan, sartu datuak taulan

Erakundea	Zenbatekoa	Egoera: eskatua edo lortua

☐ 2. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, haren erakunde autonomoek eta beste erakunde batzuek emandako izaera bereko laguntzen edo diru-laguntzen esparruan hasi eta oraindik izapidetzen ari den itzulketa- edo zehapen-prozeduraren batean sartuta badago.

- ☐ Ez
- ☐ Bai, kasu honetan, sartu datuak taulan

Prozedura / Kudeaketa instantzia

Prozedura	Kudeaketa instantzia

☐ 3. Ez dago Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 eta 13.3 artikuluetan jasotako debekuen eraginpean.

☐ 4. Ez du laguntza edo diru-laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen administratiborik edo penalik, eta ez du laguntza edo diru-laguntza horiek jasotzeko legezko debekurik, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera sexu diskriminazioagatik gertatutakoak barne.

☐ 5. Erakunde eskatzaileak/partzuergoko buruak adierazten du tokiko erakundeak/ek ez duela/dutela sexu-diskriminazioagatik zigor administratibo edo penalik.

AKREDITAZIOAK

Erakunde eskatzaileak/partzuergoko buruak ofizioz egiaztapenen bat baimentzen ez badu, dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko du.

Aplikatzekoa den araudiaren arabera, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak erakunde eskatzaileari/partzuergoko buruari buruzko datu hauek egiaztatuko ditu ofizioz administrazio eskudunean:

Legezko ordezkariaren egiaztapena

- Erakunde eskatzaileak/partzuergoko buruak baimena ematen dio deialdi hau kudeatzen duen organoari administrazio eskudunean egiaztatzeko, ziurtatzeko edo baieztatzeko, bitarteko telematikoen bidez edo, hala badagokio, eskuragarri dauden bitartekoen bidez, legezko ordezkariaren egiaztapena.

Garapenerako Lankidetzako Eragileen Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistroan inskribatuta egotearen egiaztapena

- Erakunde eskatzaileak/partzuergoko buruak baimena ematen dio deialdi hau kudeatzen duen organoari administrazio eskudunean egiaztatzeko, ziurtatzeko edo baieztatzeko, bitarteko telematikoen bidez edo, hala badagokio, eskuragarri dauden bitartekoen bidez, Garapenerako Lankidetzako Eragileen Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistroan izena eman duela.

Estatutuetan, helburuen artean, ekintza humanitarioko proiektuak egiten duela jasotzea

- Erakunde eskatzaileak/partzuergoko buruak baimena ematen dio deialdi hau kudeatzen duen organoari administrazio eskudunean egiaztatzeko, ziurtatzeko edo baieztatzeko, bitarteko telematikoen bidez edo, hala badagokio, eskuragarri dauden bitartekoen bidez, dagokion erregistroan erregistratutako erakunde eskatzailearen estatutuetan berariaz jasotzen dela haren helburuen artean dagoela ekintza humanitarioko proiektuak egitea. Hala ez bada, dokumentazio bidez egiaztatu beharko da erakundeak gutxienez bi urte daramatzala eremu horretan etengabe jarduten, dagokion informazioa «Erakunde eskatzailearen eranskinak» barruan erantsi beharko da.

Datuen babesari buruzko informazio oinarritzkoa

Eskabidean agertzen diren datu pertsonalak erabiliko dira, eta tratamendu-jarduera honi erantsiko zaizkio Garapenerako Lankidetzarako dirulaguntzak.

- **Arduraduna:** Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia.
- **Helburua:** GARAPENERAKO LANKIDETZAREN ALORREKO LAGUNTZA EKONOMIKO, DIRU-LAGUNTZA ETA BEKEN KUDEAKETA.
- **Legitimazioa:**
 - Tratamendu beharrezkoa da, interes publikoaren aldeko eginkizunen bat betetzeko edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak betetzeko jardunean.
- **Hartzaileak:**
 - Ogasun publikoa eta zerga administrazioa.
 - Gizarte segurantzaren organismoak.
 - EUSKAL HERRIKO AGINTARITZAREN ALDIZKARIAN KOOPERATZAILEEN ETA BEKADUNEN IZEN-ABIZENAK ARGITARATZEA.
- **Eskubideak:** Datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeak eskubidea duzu, baita informazio gehigarrian jasotzen diren bestelako eskubide batzuk ere.
- **Informazio osagarria:** Gure web-orrian kontsulta dezakezu Datuen Babesari buruzko informazio gehigarri eta zehaztua (www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/019500-cap2-eu.shtml)

Araudia:

Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorra

(www.euskadi.eus/contenidos/informacion/normativa_dpd/eu_def/adjuntos/RGDP-2016_0679_eu.pdf)
 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa (www.boe.es/boe_euskera/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673-E.pdf)

DOKUMENTUAK ERANTSI**Ofizioz konprobatzea**

Aplikatu beharreko araudiaren arabera, prozedura honen instrukzio-organoak **ofizioz egiaztatuko ditu** administrazio eskudunean datu hauek:

- ✓ Gizarte Segurantzaren ordainketan egunean egotea (Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia - GSDN).
- ✓ Zerga-betebeharren ordainketa egunean izatea (Euskal Foru Aldundiak eta Zerga Administrazioako Estatu Agentzia).

Interesdunak, modu arrazoituan, aurka egiten diotenean izan ezik. Erabili aurka egiteko eskubidea.

Eskatutako dokumentu motak

Eskatutako dokumentuak	Ekintzak
Proposamen teknikoa	Erantsi / Bilatu / Aurkeztua
Aurrekontua	Erantsi / Bilatu / Aurkeztua
Erakunde eskatzailearen eranskinak	Erantsi / Bilatu / Aurkeztua
Tokiko erakundearen eranskinak	Erantsi / Bilatu / Aurkeztua
Bideragarritasun teknikoaren, materialaren eta metodologikoaren eranskinak	Erantsi / Bilatu / Aurkeztua